

...z!o

$x^n + y^n = z$
 $n > 2$



Loroaren teorema

DENIS

GUEDJ



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ISBN 84-8373-816-3



9 788483 738160



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Salla

Loroaren teorema

Hizkuntza unibertsala dugu matematika, unibertsalena. Zientzia hutsetatik osoena; ospe zabalekoa, baina —maizegi— gaitzetsia: abstraktua, ulertezina, elitista... Ez dago, ordea, matematika baino demokratikoagorik!: «Geometrian, ez da errege-biderik», ihardetsi zion Euklidesek Ptolomeo II.ari, erregeak matematikarako bide laburragoren bat eskatu ziolarik.

Inguratzen gaituen horretan barrentzeko modu ahaltsuen eta zorrotzena da matematika. Ederki zekien hori Galileok: «Matematikaren bitartez mintzo da Izadia». Izadiak matematika du adierazpide, eta hura ikasi beharko du, nahitaez, munduaren liburua irakurri nahi duenak.

Umorea eta hausnarketa bateratuz, intrigazko eleberri bat ondu du Denis Guedj-ek, *intriga matematikozkoa*. Detektibe-ikerketa bat aitzakia, matematikaren historia aurkeztuko digu: Euklides, Pitágoras, Arkimedes, Newton, Descartes, Cantor...

Istorio argia eta atsegina topatuko dugu orriotan, pasadizoz betea. Antzinako grekoen buruhaustea eta lorpenak ederretsi; arabiarren aurrerabideak estimatu; europarren eraberritzeak ezagutuko ditugu. Familia *sui generis* bat osatzen duten pertsonaia xarmagarriak izango ditugu bidelagun: Ruche liburu-saltzaile bitxia, Max gazte gorra, Jonathan eta Léa bikiak, Perrette emakume misteriozua eta, jakina, lora: Nofutur. Eta Parisko hainbat txokori egingo diegu bisita: Montmartre auzoa, museoak, liburutegiak, Grand Palais, ...

Letrak eta zientziak: hala banatzen zen, oraintsu arte, jakintza. Letrak ala zientziak? Bat bera ez al da, baina, helburua? Gozatu *Loroaren teorema*, eta egiaztatu nor den irabazle letren eta zientzien arteko sokatiran: gu geu.



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

